

Etxean Kontu Kantari 2017-02

Maro Marotxu

Zubizarreta, I. (2007). *Bularretik Mintzora*. Galtzagorri elkarte.

Maro Marotxu,
eragiozu eskutxoari
behin batari eta
behin besteari...

Oharra: Kantu polita dugu honako hau. Haurra txikia bada, eskua eragin haurraren aurpegi aldean begira dezan. Handiagoa bada, gurekin batera, kankak esandakoan eskuari eragin diezaion gonbida dezakegu.

Txalopin txalo

Zubizarreta, I. (2007). *Bularretik Mintzora*. Galtzagorri elkarte.

Txalopin txalo
Txalo eta txalo
Katutxoa mizpira gainean dago.
Badago bego,
Bego badago,
Zapatatxo berriei Begira dago.

Oharra: Txaloka aritzeko.

Txoritxo Pintto-Pintto

Zubizarreta, I. (2007). *Bularretik Mintzora*. Galtzagorri elkarte.

Txoritxo pintto-pinttok,
arbola adarrean,
ederto kantaten dau,
buztana gainean.
Xoxua, birigarrua,
Kamixero, kamixero,
Makarroi goxuak!

Hain urrin etxe poxpola

Zubizarreta, I. (2007). *Bularretik Mintzora*. Galtzagorri elkarte.

Hain urrin etxe poxpola, ola, ola!
Tximinitik gora kea dariola, ola, ola!
Gaintxoan arbola zelai erdian,
erreka pol - pola etxe atarian:

Trailara, eta trailara
dena txiki- txikia, txikia horra.

Jo atetxoko txilina, ola ola!
Sutondoan kuzkur lo - lotan mitxina, ola, ola!
Sutan danbolina gaztain erretzen,
lapikoan gal - gal babak egosten:
Tra lara...

Badator etxeoandrea, ola, ola!
Begitxoak ñir - ñir, ahoan irria, ola, ola!
Zuri - zuri ilea eta buru - zapia,
zuri - gorri umea jaio - berria:
Trala rala...

Oharra: keinuz lagunduta kanta daiteke hau.

Joxe Moxe gitarra

Zubizarreta, I. (2007). *Bularretik Mintzora*. Galtzagorri elkartearen.

Joxe Moxe gitarra
ahuntzak hainako bizarra.
Zopa gutxi janda
Unai kaxkarra!

Oharra: Haurrari kantatzen zaio jaten ematen zaion bitartean. Izenak aldatzen dira haurrarekin jolasean aritzeko.